



UDAL ARTXIBOKO DOKUMENTUEN KONTSULTA EDOTA KOPIA EGITEA

Helburua

Edonor etorri daiteke Udal Artxiboan gordetzen ditugun funtsak kontsultatzera. Beti ere dokumentuak kontsultatzeko baimena dago, indarrean dagoen legeriak mugaturiko kasuetan izan ezik.

Kudeatzen ditugun testu funtsa ezberdinen bilaketa datu basean egin daiteke. Argazki eta bideoen kasuan, momentuz behintzat, Artxibora etorri beharra dago.

Artxiboan gordetako agirien erreprografia artxiboaren baliabideen arabera egiten da. Agirien kopia baldintzatuta egongo da, betiere, agirien kontserbazio-egoeraren arabera eta jabetza intelektualari buruzko araudiaren baldintzak kontuan hartuta. Ezingo dira kontsultatu, inola ere, sarbidea legez mugatuta duten datuak dituzten agiriak. Kopia korreo edo e-postaz bidaltzen dira eta horretarako udalak onartutako tasen arabera ordainketa egin behar da.

Norentzat

Interesa duen edozein pertsona fisikoa zein juridikoa, beti ere identifikatzen bada

Aurkeztu behar diren agiriak edo betebeharrak

Artxiboko dokumentazioaren kontsulta/kopia eskaera (F0044 inprimakia), behar bezala beteta.

Erabiltzaile berriak, gainera:

Udal artxiboko erabiltzaile izateko alta-eskaera (F0116 inprimakia), behar bezala beteta.

Aukezteko epea

Edozein momentuan

Eskabidea non aurkeztu

BERTARATUTA

BERGARAKO UDAL ARTXIBOA. San Martin Agirre plaza, 1 20570 BERGARA

ORDUTEGIA: *Astelehenetik ostiralera:*

-08:30-13:30, 14:30-17:00 (neguko ordutegian).

-08:00-15:00 (udako ordutegian, ekainetik irailera)

KORREO ELEKTRONIKOZ

artxiboa@bergara.eus

Harremanetarako:

Telefona: 943 779 132/ 943.779.127

e-maila: artxiboa@bergara.eus

Udal Artxiboaren zerbitzuen eta funtsen inguruko informazioa gehiago eskuratzeko kontsultatu Udala

Artxiboko web orria

Zenbatekoa/Tasak

Kopiak eskatuz gero, indarrean dagoen ordenantzaren araberako tasak ordaindu beharko dira ([Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza](#), c epigrafean adierazten direnak).

Izapidetzearen departamentu arduraduna

Udal Artxiboa

Legeak eta arauak

16/1985 Legea, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa (EAO, 155zk.a, 1985/06/29); lege hori zati batean 111/1986 Errege Dekretuak garatu zuen (EAO, 24 zk.a, 1986/01/28); eta azken hau aldatu egin zuen 64/1994 Errege Dekretuak (EAO, 52 zk.a, 1994/03/02).

7/1990 Legea, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa (EHAA, 157 zk.a, 1990/08/06).

232/2000 Dekretua, Artxibo-zerbitzuetako araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentazio-ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituena (EHAA, 235 zk.a, 2000/12/11).

1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzkoa (EAO, 115 zk.a, 1982/05/14).

1/1996 Legegintzako Errege Dekretua, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena (EAO, 97 zk.a, 1996/04/22).

15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa (EAO, 298 zk.a, 1999/12/14), eta 1720/2007 Errege Dekretua, hura garatzeko erregelamenduari buruzkoa (EAO, 17 zk.a, 2008/01/19).

37/2007 Legea, Sektore Publikoko Informazioa Berrerabiltzeari buruzkoa (EAO 276 zk.a, 2007/11/17)

1671/2009 Dekretua; partzialki garatzen duena 11/2007 Legea, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa (EAO, 278 zk.a, 2009/11/18)

19/2013 Legea, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa (EAO, 295 zk.a, 2013/12/10)

18/2015 Legea; Sektore Publikoko Informazioa Berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea aldaraztekoa (EAO, 164 zk.a, 2015/07/10)

39/2015 Legea, Administrazio Publikoan Prozedura Erkidearena (EAO, 236 zk.a, 2015/10/02)

Udalak onartutako Udal Artxiboko kontsulta-gelarako araudia

Udal Artxiboko dokumentuen kopien erabilerarako arauak, udalak onartutakoak

Eredu edo inprimakiak

Udal artxiboko erabiltzailea izateko alta eskaera (F0116 inprimakia).

Artxiboko dokumentazioaren kontsulta/kopia eskaera (F0044 inprimakia).

Oharrak

Kontsulta beti artxiboko kontsulta-gelan egin behar da; ez dago dokumentu horiek mailegatzeko aukerarik.

Udal Artxiboaren zerbitzuen eta funtsen inguruko informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Udal Artxiboko web orria](#)

